



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea



IKASLE KONTSEILUA
CONSEJO DE ESTUDIANTES

2012ko

“KexaTU”

MEMORIA



SARRERA:

UPV/EHUko ikasleen arautegiak ikasleen interesak defendatzeko eginkizun ezberdinak aitortzen dizkio UPV/EHUko Ikasle Kontseiluari. Horien artean, nabarmentzekoa da honako hau: “ikasleen jarduera-ildo orokorrak proposatzea unibertsitatearen eremuan, eta horiek aurrera eramatea, ikasleen eskubideen defentsa eta aplikazioa zainduta, horiek betetzea eskatuta”, beti ere “irakaskuntzaren eta egiten diren ikasketen kalitatea” zainduta eta “emandako irakaskuntzari eta ikasketei lotutako arazoak instantzia eskudunei” jakinarazita; eta baita beste hau ere: “ikasleei eragiten dieten gatazken ekimenak eta erabakiak kudeatzea, bere eskumenen esparruan”.

Jakin dakigunez indarrean den araudiak gure kolektiboaren eskubideak jasotzea ez dela nahikoa, UPV/EHUko Ikasleen Kontseiluak kexen protokoloa abian jartzeko lan egin zuen 2012an. UPV/EHUko ikasleek jartzen dituzten kexei edo pairatzen dituzten eskubide-urraketei erantzutea eta era berean salatzailearen anonimotasuna une oro bermatzea da protokolo horren helburua. Ekimenak 2010ean egindako beste bat du oinarri, izan ere, garai hartan Batzorde Paritarioak ikasleen kexa guztiak helarazteko prozedura bat hitzartu baitzuen. Lehen bertsio horrek zenbait gabezia izan zituen, eta oraingo honetan horiek konpontzen saiatu gara. Ikasleen arautegiaren arabera, protokolo horrek irakasleen urraketak bakarrik hartu beharko lituzke kontuan, baina UPV/EHUko Ikasle Kontseiluaren ustez oso positiboa da kexa guztietan erabiltzea.

Kexa-protokoloa prestatzerakoan ahalegin berezia egin genuen Unibertsitateak kargu akademikoen erantzukizunak defini zituzten (77. art.) eta erantzuteko epeak ezar zituzten (I. eranskina), uste baikenuen hala ez egiteak arazoa gehiegi luzatzea eta, horrenbestez, ikasleei kalte konponezinak eragitea ekar zezakeela.

Txosten honetan azaltzen diren datuak interpretatzeko orduan kontuan hartu behar da prozedura aldatu egin dela eta askok jakin ere ez dakiela UPV/EHUko Ikasle Kontseilua existitzen denik, azken urteetan ez baitu jarduerarik izan. 2012ko martxoaz geroztik UPV/EHUko Ikasle Kontseiluak prozeduraren behin betiko eredia definitutakoan hura zabaltzeko kanpaina egin ahal izateko aurrekontu-sail bat izan du esleituta, baina ikasleen arautegiaren negoziazioan prozedurak aldaketa esanguratsuak jasan zituenez, Kontseiluak ez zuen haren berri modu masiboan eman nahi izan. Kanpaina 2013ko otsailean egin zen azkenean, 2012/2013 ikasturteko lehen lauhilekoko azterketa garaian, alegia.



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea



IKASLE KONTSEILUA
CONSEJO DE ESTUDIANTES

2012ko kexen azterketa estatistikoa




JASOTAKO KEXEN AZTERKETA

Lehenik eta behin azpimarratu behar da ikasturte hasieran kexen protokoloa oraindik ere sistematizatu gabe zegoela, beraz, litekeena da kexetako batzuk txosten honetan zenbatu gabe egotea datu nahikorik egon ez delako.

Bestalde, nabarmendu behar da jasotako kexa gehienak bide beretik etorri direla, hau da, salataileak lehenik Ikasle Kontseiluarekin jarri ziren harremanetan eta azken horrek gomendatu zien kexa jartzeko. Modu horretan 21 kexa jaso ditugu guztira, protokoloari buruzko inolako difusio-kanpainarik egin gabe eta Ikasle Kontseiluak ikasleengana iristeko duen zailtasuna gorabehera; ezin dugu ahaztu joan den urteko erdialdera arte Kontseiluak ez zuela sare sozialik ezta web orririk ere, eta urrira arte ez du on-line buletinik ere izan.

Urteko kexen %




Honako grafiko honetatik ondoriozta daitekeenez, kexa gehien martxoan eta abenduan jaso ziren (% 19,05), eta baita otsailean eta ekainean ere (% 14,29). Uztailean eta azaroan gutxixeago jaso ziren (%9,52), baina gutxien urtarrilean, maiatzean eta abuztuan jaso ziren (% 4,76).



Jasotako 21 kexetatik % 38,10 (8 kexa) Bilboko Industria Ingeniaritza Teknikoko Unibertsitate Eskolako ikasleek jarri zituzten eta % 23,81 (5 kexa), aldiz, Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatekoek. Kexaren bat aurkeztu duten gainerako ikasleak ikastegi ezberdinetakoak dira, jarraian aurkezten den grafikoan ikus daitekeen moduan:


Ikasleen jatorria, Ikastegien arabera (2012)



Campusen araberako azterketa eginez gero, ikus daiteke kexen % 85 Bizkaiko Campusari dagozkiola (18 kexa), Gipuzkoakoari % 9,5 eta Arabakoari, aldiz, % 5 baino gutxiago (% 4,7 hain zuzen).




Ikasleen jatorria, Campusaren arabera (2012)



Izapidetzeari dagokionean, ondoriozta daiteke aurkeztutako kexen harrera-maila oso handia dela, izan ere, UPV/EHUko Ikasle Kontseiluak jasotako 20 kexetatik (2 gai berari buruzkoak ziren) 17 onartu ziren eta 1 baztertu egin zen salatzailea ez zelako UPV/EHUko ikaslea. Gainerako biak informazioa emateko xedez aurkeztu ziren, kaltetutako pertsonaren Ikastegiko Ikasle Kontseilua ari baitzen dagoeneko gaia bideratzen.

2012an onartutako kexen %



Kexen mota ahalik eta modu zehatzenean aztertzeko xedez, UPV/EHUko Ikasle Kontseiluak egokitzat jo du jarraian azalduko dugun zazpi mailako sailkapena egitea. Nolanahi ere, honako hau lehen bertsioa baino ez da, beraz, komenigarria litzateke etorkizunean berrikustea. Sailkapena honako hau da:



1. Matrikulazioa eta eskaintza akademikoa:

Ikasgaien eta praktiken eskaintza akademikoari, Karrera Amaierako Lanei, Gradu Amaierako Lanei eta Master Amaierako Lanei zein matrikulak bideratzerakoan izandako edozein arazori buruzko kexak.

2. Irakaskuntza eta tutoretza

Irakaskuntzaren kalitateari, irakasleak eskola- edo/eta tutoretza-orduetan ez egoteari zein tutoretza arazoei buruzko kexak.

3. Ebaluazioa eta noten argitalpena

Ebaluaziorako eta notak argitaratzeko araudiaren urraketei buruzko kexak. Maila honetan ez dira notarekin ados ez egotearen ondoriozko kexak sartuko, horretarako berariazko prozedura bat baitago.

4. Azpiegiturak eta zerbitzuak

Unibertsitate-azpiegiturei eta zerbitzu ezberdinei buruzko kexak.

5. Euskara

Arretan, irakaskuntzan, ebaluazioan edo beste edozein arlotan hizkuntza- eskubideak urratzeari buruzko kexak.

6. Prezio Publikoak eta Bekak


Prezio publikoak kobratzeari edo/eta horiek salbuesteari buruzko kexak eta Unibertsitateko, Hezkuntza Saileko, Hezkuntza Ministerioko edo beste edozein erakundeko beken izapideari buruzko kexak.

7. Bestelakoak

Aurreko ataletan sartzen ez diren kexak.



2012ko kexen arloak




Goiko grafikoak erakusten duenez, kexa gehienak "ebaluazioa eta noten argitalpena" atalari dagozkionak dira (% 35), eta horien ondotik datoz "irakaskuntza eta tutoretza" eta "matrikulazioa eta eskaintza akademikoa" ataletakoak (biak ere kexen % 20). Hurrenkeran hirugarrenak dira "hizkuntza-eskubideei" eta "azpiegiturei" dagozkien kexak, guztien % 10. "Prezio publikoei eta bekei" buruzko araudiaren aplikazioaren gaineko kexa bakarra jaso da (% 5).



Egoera 2012 amaieran


■ % Desistidas ■ % Pendientes ■ % finalizadas



UPV/EHUko Ikasle Kontseiluak 2012an zehar onartu eta izapidetu dituen kexa guztietatik % 71 amaituta daude, % 24 oraindik ebatzteke daude eta % 5 bertan behera geratu dira. Amaitu direnen artean, % 67 salatzailearen alde ebatzi dira eta gainerako % 33en ebazpenak ez ditu kexaren sustatzaileak asebate. Azterketa hori egiterakoan onartutako kexa guztiak hartzen baditugu kontuan, esan daiteke abenduaren 31n salatzaileen erdiak (% 47) emaitzekin pozik zeudela eta ia laurdenak (% 23,5), aldiz, ez zeudela emaitzarekin pozik.

Asebetetze-maila (2012)

■ % satisfecho ■ % insatisfechas





Kexak tartean hartzen duten organoaren arabera aztertuz gero, zehaztu beharra dago kexaren ardura araudia aplikatu behar duen azken organoari egozten zaiola.

1. Unibertsitateko sailak:

Irakasleen tratuari, irakasleak eskoletara edo tutoretzetara ez bertaratzeari, azterketak galtzeari zein ebaluazioaren eta noten argitalpenaren araudia lehen instantzian urratzeari buruzko kexa guztiak egotziko zaizkie.

2. Unibertsitate-ikastegia:

Ikastegian matrikula izapidetzeko arazoei, curriculumeko zein curriculumez kanpoko ikasgaien eta praktiken eskaintza akademikoan dauden arazoei, GAL/MAL arduradunaren esleipenari eta Ikastegiko Batzordeak onartutako epaimahaiak osatzeko araudiaren urraketari buruzko kexa guztiak egotziko zaizkio.

3. Campuseko Errektoreordetza


Organo horren mendeko azpiegiturei edo bere eskumeneko gainerako instituzioekin tratatu behar dituen azpiegiturei buruzko kexa guztiak egotziko zaizkio.

4. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila

Bere eskumeneko gaiei buruzko kexa guztiak egotziko zaizkio, bereziki bekei eta prezio publikoei dagozkienak, bere lana baita horiek arautzea.

5. Orokorrak

Atal honetan sailkatuko dira izapide-maila ezberdinetan etengabe gertatzen diren akatsei dagozkien kexak.



Grafiko honetatik ondoriozta daiteke jasotako kexen erdia baino gehiago (% 55) unibertsitateko sailekiko arazoei dagozkiela, bereziki ebaluazio-sistemen ezarpenari eta aplikazioari buruzko arazoei. Era berean, zenbait kasutan irakasleek ez dituzte irakasle gisa dituzten obligazioak bete. “Unibertsitate-ikastegiak” dira kexa gehien jasotzen dituen bigarren organoa, kexen % 25 biltzen baitute. Organo horri dagozkion kexa gehienak eskaintako irakaskuntza-eskaintzari edo ikastegiek onartutako Epaimahaien Osaerari buruzko araudiaren urraketei buruzkoak dira. Azkenik, unibertsitate-azpiegituren arduraduna den Campuseko Errektoreordetza dago. Aipatu behar da badagoela prezio publikoen salbuespena arautzen duen aginduari loturiko kexa bat ere.



AZKEN GOGOETAK

Beharrezkoa iruditzen zaigu unibertsitateko edo erkidegoko araudiak aldatzeko interes handikotzat jotzen ditugun egoerak eta Unibertsitatean behin eta berriro errepikatzen diren egoerak aipatzea.

- 1) **Genero-indarkeriaren biktima bat kexu da beste Autonomia Erkidego batean errolatuta egotearren ez dagoelako prezio publikoetatik salbuetsita.** Ikasle Kontseiluak kasua Gizarte Erantzukizuneko errektoreordeari helarazi dio aukera ezberdinak proposatuta, baina oraindik ez du erantzunik jaso. Aldezleak, aldiz, erantzun du ez duela gaia aztertuko.
- 2) Hainbat kexak **irakasleak eskola eta tutoretza orduetara agertu ez izana salatzen dute.** Urtebete igaro da eta oraindik ez dugu **irakasleen Errektoreordetzaren erantzunik jaso.**
- 3) Unibertsitateko irakasleek euren **obligazioak bete ez dituztela frogatu den kasuetan** (eskoletara/tutoretzetara ez agertzea, azterketak galtzea, notak izen-abizenekin argitaratzea...), Errektoreordetzek, Ikastegiek eta unibertsitateko Sailek **urraketa horien % 100 zuritu dituzte, eta guk dakigunez orain arte ez da inolako diziplina-espedienterik zabaldu.**
- 4) Kentzeko dauden titulazioetako irakaslerik gabeko ikasgaietan matrikulatutako ikasleek aurkeztu dituzten kexen arabera, **azterketak Gradu-ikasketetako berberak dira ematen dituzten gaiak ezberdinak izan arren.**
- 5) **Ebaluazio-proba baten zati bat galdu dela salatu** du ikasle batek, baina badirudi irakasleak halakorik gertatu izana ukatzen duela, eta erantzunik ezak kalte konponezina eragin dio kaltetutako pertsonari.
- 6) Ofizioz izapidetu da, Ikasle Kontseiluaren ustez **Epaimahai Bereziei eskabideak aurkezteko epeak irrigarriak** baitira zenbait kasutan. Gainera, **epaimahai horiek ematen dituzten ebazpen gehienak ez dira behar bezala arrazoituta egoten.**

eman la zabal zazu



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea



IKASLE KONTSEILUA
CONSEJO DE ESTUDIANTES

UPV/EHU

- 7) Bizkaiko **Campuseko Errektoreordetzak** azpiegituren inguruan **emandako erantzunak egokiak izan dira kasuen % 100ean.**